A1374

Domingo de Piñata

Altzako kaleetan inauteriak ospatuko dira igande honetan, duela urte batzuk egiten hasi ziren Domingo de Piñata delakoa hain zuzen ere.

Otsailaren 16an, Donostiako inauterietan parte hartu duten talde nagusiek lau Haizetatik Harriara doan desfilean dantzatuko dute, eguerdiko 12.00etan.

2.500 lagun dantzan

Auzoko talde guztiek hartuko dute parte, Alegria de Alza, Santa Barbara eta Gurea, Txapinene, Larratxo, Altza eta Herrera pasealekuko kaleetan zehar. Igandeaz gain, larunbatean desfile informala antolatu dute, bakoitzak nahi duen tokian eta eran dantzatzeko.

Altzako inauterien aurkezpen ofiziala, Gurea elkarteak egingo du, eta gauean dantzaldia izango da elkarte honen parean. Elkarte hau bera arduratuko da sari banaketa bat egiteaz, urrezko eta zilarrezko raspa emango dizkietela irabazleei. Guztira 2.500 pertsona arituko dira gure kaleak alaitzen.

Zergatik ez Altzan bakarrik?

Batez ere Gurea elkartetik planteatzen ari da bertakoak Altzako inauterietan bakarrik parte hartzea Donostiakoak utziz, eta bertako jaia antolatzea. Baina hainbeste diru kostatzen diren konpartsek urtero gauza bera egiten dute, Donostian beraien lanak erakutsi eta gero etorri auzora. Gauza beretsua gertatzen da Trintxerpeko inauterietan ere.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Domingo de Piñata, gainerako auzoetan inauteriak bukatu direnean, Altzan ospatzen jarraitzen dugu.

Larratxoko Osteguna auzo elkarteak, makina bat lan izan du azken aste hauetan, Bertsolari Txirrita kaleko 2, 4 eta 6 etxeetan, kotxe aparkalekuak egin nahi direla eta.

Arazoa 1988 urtetik dator, orduan Udalak aparkalekuak egin nahi zituen promotorari, beharrezko baimena ukatu zion, gehiegizko bolumena argudiatuz. Orain promotora berriz buru belarri ari da baimen horiek eskuratu nahiean baina auzo elkarteak iritzi garbia azaldu du arazo honetan.

KALEFAKZIO
INSTALAKUNTZAK
URKO
Seriotasuna, kalitatea eta materialik onenak
Madril hiribidea 10 • Tfnoak.: 45.30.89 eta 909-42.69.54

PARMA hotela
Itsas aurrean. Bainua, kalefazioa, telebista eta telefonoa gela guztietan
SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TFNOA: 42 80 19

INTXAUSTI DIETETIKA
Santiveri
jaki osasuntsu eta naturalak
Jose Elosegi 120 • Tfnoa.: 39 89 84

KILIKARIAK
Partaide berriak behar ditugu
Esperientziarik ez da behar
Animatu zaitez!!!
4.082 Postakutxa • Tfnoa.: 40 03 05
20017 HERRERA • DONOSTIA